

KOLDO ZUAZO

Deskribapena: Kike liburutegi batean azaltzen da.

Kike: Gure dialektoak euskalkiak dira eta batzuk Australiako indigenen mintzairen patu bera sufritu eta desagertu diren arren, badira ere osasun ona dutenak.

Deskribapena: Kike liburutegian liburuak kontsultatzen azaltzen da.

Kike: Hara! Bonaparteren mapa! Louis-Lucien Bonapartek Napoleonen iloba eta euskal hizkuntzalaria zenak, euskalkien lehenengo mapa egin zuen mila zortziehun eta hirurogeita hirugarren urtean. Urte mordoia pasa da harrez geroztik. Eskerrak Koldo Zuazok mapa hau eguneratzeko lanak hartu dituen.

Deskribapena: Kike eta Koldo Zuazo ageri dira orain parke batean mapa berria ikusten.

Kike: “Koldo, eta Bonaparteren mapatik zuk argitaratu berri duzun mapa honetara zeintzuk dira hola, alderik nagusienak edo?”

Koldo: “Hiru; alde batetik Naparruan, Naparruko eremu zabalean euskera galdu egin dela ekialdean eta gero Iruñerri inguru horretan. Gero bestea da, Lapurdin eta Nafarroa Beheran Bonapartek hiru euskalki bereizi zituen eta nik bakarra ikusten dut. Hor gertatu dena da bi gauza, alde batetik euskaldunen kopurua txikitu egin dela eta beste alde batetik, euskaldun gutxi horien arteko hartu-eman estutu egin dela. Eta gero beste gauza bat nabarmena da Gipuzkoako euskera hori zabaldu egin dela, ezta? Bai apaiz eta fraileen lanagatik elizetan eta Gipuzkoako euskera erabili izan delako, bertsolariengatik ere bai eta gero jakina, behin, mila bederatziehun eta hirurogeita zortziaz gero, euskera batua egin denetik, euskera batua hor dago oinarrituta, euskalki horretan, eta hori da gaur egun eskoletan eta zabaltzen dena.”